

ERRENTERIA-KO TOPONOMASTIKAREN ISLADA BATZUK

Luis Maria MUJICA

Laburki bada, ere, Errenteria-ko herriak eskaintzen digun altxor toponimikoaren alde edo aspektu zenbait eskaini nahi nuke. Gaur egun euskara hain ahuldua dagoen herri honetan gure hizkuntzaren aztarrenak ukaezinak bilakatzen dira, bereziki, *toponomastikak* isladatzen digun ugaritasunean. Lehendik BILDUMA 1 aldizkarian (145-191 orriak) emana, zuzenketa eta gehidura batzuz EUSKAL TOPONIMIAZKO MATERIALEAK obraren VII alean Errenteria-ko toponimiarren beste berri jaso ahal izango du irakurleak.

Toponimiak nabarmen uzten du herri industrialeztatu honen *euskaltasuna*, Errenteria-ko desoreka linguistikoa XX mendearen bigarren aldekoa delarik, funtsean. Guk eskaintzen ditugun *milla eta ehun* bat tokizeneko materialeak lehenetako mendeetan errenteriarrek bere luraren eginiko deskribapenaren zehaztapen garbi aunitz luzatzen digu.

Iturri nagusienak multzo toponimiko hori eskuratzeko Oñatiko Artxibategiko *Protokoloak* (XVI-XVIII), *Contadurías de Hipotecas* (XVIII mendekoak, gehienbat), *Libros de Registros de Propiedad* (XIX mendekoak, Oñatiko Artxibategian kokatuak), *Indices de Registros* (Donostia-n), eta *Amilaramenduak* (XX mendekoak) izan dira.

Materiale toponimikoetatik adierazpen *fonetiko* aunitz atara daiteke. Besteen artean, bokale arteko herskarien edo oklusiben euspena, konposakeran ematen diren apofoni kasuak, bokaleen sinkopa eta murrizketak, kontsonante zenbaiten aldaketa (Arkorta ordez *Alkorta*, Argorri ordez *Algorri*, Zamaribide ordez *Zamalbide*, Lurberri ordez *Luberri*, Egibizkar ordez *Epizkar*, Oiandegi ordez *Ojandegi* (belareztapen berantaz), Egigain ordez *Ekain*, etab.).

Filologiaren aldetik ere interesgarria Errenteria-ko toponimian atzeman daitezkeen atzizki-adierazpenak. -DI, -ETA, -AGA, -OLA, -ZU/ZA gisako atzizkien edo sufijoen hedadura semantikoa ez-ezik, erabilpena zertu daiteke. -AGA kasun, adibidez, ez-ohizkoa gertatzen da sufijo lokatibo hori izen berezi bati erastea *Frantzesillaga* kasuan bezala. -ETA atzizki latinoarekin, adibidez, hurrengo izenak: *Lizartxoeta*, *Lertzundieta*, *Listorreta*, *Txoritokieta*, *Urteetan*, *Urdangu-*

rutzeta, *Urraeta*, *Zubieta*, *Usategieta*, *Azkonarzuloeta*, *Igarreta* (lugar de molinos), *Idurieta*, *Urguruzeta*, etabar.

-GIN/GILE atzizki aktiboaz hurrengoak: *Amugilleta* (casa del fabricante de anzuelos, latinez *amun* —anzuelo), *Peruzillargillenea* (la casa de Pedro el platero), *Tellagiñeta* (la casa del tejero), *Morrongilleta*, *Aspagindegi* (la casa del fabricante de fuelles, *auspo*). Beste herritan atzizki berdinez *Sarrallagillena* (cerrajero), *Konfitegillenea*, *Txalupagillena*, *Pastagillenea*, *Ballestagillenea*, *Ezpatagillenea*, *Saskigillenea* oikonimoak.

Ikus ditugun, orain, Errenteria-ko toponomastikak ziklo kulturalen eremuan eskaintzen digun beste zehaztapen zenbait:

I) *Fitonimiaren eta botanikaren arloan*: Euskal Herriko floraren lekukotza nabaria hurrengoetan: *Elokadi*, *Urrizaga* (avellaneda), *Gorostegi* (bosque de acebos), *Anzifagadi* (lugar de hayas y ciénagas), *Ariztiluze* (hayal largo), *Antonsagardia* (manzanal de Antón), *Malotasasi* (zarzal de varas), *Otaria* (argomal), *Illarrasusain*, *Irastorgorri* (helecho colorado).

II) *Hidrografiaren eremuan*: *Iturburu*, *Iturralde*, *Iturriagarai* *Putzuzuloeta* (lugar de agujeros de pozos), *Konporta*, *Presalde*, *Erreka-txiki*, *Bentakoerreka*.

III) *Eraikuntzan eta komunikabideetan*: *Zamalbide* (camino de caballos de carga, latineko *sagmarisus*-etik), *Mandabide* (camino abrupto o de mulos), *Bidagorri*, *Bidegurutzeta* (lugar de encrucijadas), *Errazubi*, *Gaztelu* (castillo, latinezko *castellum*-etik), *Gaztelutxokobaratza*. Bordanan, *Galtzaraborda* (borda de la calzada), *Soroetaborda*.

IV) *Abere eta nekazal kulturaren*: *Astabizkar* (loma de asnos), *Mandabidegarai*koa, *Urdanguruzeta* (encrucijada de cerdos), *Urdaniturri*, *Urdanzulo* (hondonada de cerdos), *Sarrobe* (majada de ovejas), *Saroberreka*, *Espilla* (seto redondo), *Barruti* (acotado), *Luberri* (tierra noval), *Berrotaran* (seto, lugar húmedo), *Larretxipi* (dehesa pequeña, hemen

txipi formula gaurko txiki orde), *Larremotx* (dehesa corta), *Mindegiberri* (viviero nuevo).

V) *Industria*: *Bengoerota*, *Errotaburu*, *Pekinerota*, *Fanderikoeerota* (erota latineko *rotam*-etik), *Olaberriaga*, *Oleta*, *Gabiola* (-ola etor daiteke latineko *aulam*-etik, monoptongapen berantaz, cauda, coda, aula *ola* gisa; hitza-ren semantika zabala da: "aposento", "cabaña", "lugar en general", "ferrería"), *Tellagiñeta* (lugar del tejero), *Telleriaberr*.

VI) *Toponimia erlijiosoa*: Santuen ermita eta egoitzen lekukotza han-hemen: *Sanmarkos*, *Sanjuanenea*, *Sanesteban*, *Sansalbador*, *Santana*. Besteak: *Guruze*, *Elizegi*, *Konbentukolarre* (dehesa del convento), *Kanposantualdea* (paraje del cementerio), *Ermitako-etxea*.

VII) *Oikonimia edo etxe-izenean arloa*: Errenteria-ko etxeen deiturak aski sugestiboak dira, maiz, profesioen adierazpen direlako. Aipagarrienetan hauek: *Probedorenea* (la casa del proveedor), *Pekinexea*, *Faktorenea* (la casa del fac-

tor), *Kapitanenea* (la casa del capitán), *Juanzurienea* (la casa del Juan el cano), *Peruzillarenea*, *Mariederra* (María, la hermosa), *Danzarinea*, *Barberoenea* (la casa del cirujano o del barbero), *Loperenea*, *Sakristanenea*, *Sarragillenea* (la casa del cerrajero), *Salomenea*, *Amugilleta*, *Maisumartiñenea* (la casa del Maestro Martín), *Perotxonea*, etabar.

Toponimiak eta onomastikak, orokorki, Errenteria-n isladatzen duen ñabartasuna oraindik asko luza daiteke. Haseran esaten genuenez, errenteriarrek badute zer ikasi bertatik, aurretiko mendetan (eta bere hizkuntzaren ardatzetik) sorturiko kulturaz jabetzeko. Besterik gabe, *Auringogaztañegiburua*, *Bordazarkoaitzarenondoa*, *Floreagabarrukobarrutia*, *Irastorgorikomugarensalla* gisako *isats-izenek* gure errespetu, ardura eta atentzioaren zerdun dira.

Errenteria erdaldunduak, bada, bere iragana eta euskaltasuna dasta dezala berriro onomastikak damaigun altxor hain aberats eta ugaritik.

